

**Donostian maiatzean ireki zuen supermerkatua**

## **EROSKI-K SUPERMERKATU PROPIO BAT IREKIKO DU GAUR BILBON**

- Supermerkatu berri hori irekitzeko, 2,2 milioi euro inbertitu ditu, eta 38 lanpostu sortu dira. Ostegunean irekiko dute jendaurrean
- Inaugurazio honek abiaburuan du irekiera plan bat, zeinetan EROSKIren asmoa baita urtero 100 bat milioi euro inbertitzea irekiera horietarako eta sare komertzial guztia Zurekin eredura aldatzeko
- Azken urteetan EROSKI k estrategia ildo bat erabili du, hau da, sare komertziala denda-belaunaldi berrira eraldatzea, eta dagoeneko 590 saltokitara iritsi da

**Bilbo, 2017ko urriaren 18a.-** [EROSKI](#) k supermerkatua inauguratuko du gaur arratsaldean, Bilboko Tellagorri kaleko 8.ean. Kooperatibak beste supermerkatu propio bat ireki du Donostiako saltokia ireki zuenetik bost hilabete pasatu diren honetan. Azken urte hauetan, EROSKIren strategiaren parte bat izan da irekierak frankizien sistemaren bitartez egitea; hala, 200 inaugurazio baino gehiago egin ditu 2014an hasi zenetik. Eta strategiaren beste partea, berriz, sare komertziala belaunaldi berriko dendetara aldatzea izan da; dagoeneko, 590 saltokitara iritsi da, eta, horretarako, 300 milioi euro inbertitu ditu lau urte honetan.

Inaugurazio honekin, denda propioen irekiera plana betetzen ari da, zeinetan EROSKIren asmoa baita urtero 100 bat milioi euro inbertitzea irekiera horietarako eta sare komertzial guztia Zurekin eredura aldatzeko. Denda propioen irekiera hauek penintsularen iparraldean eta ekialdean kontzentratuko ditu, hasi Galiziatik eta Kataluniara eta Balear Uharteetara; izan ere, EROSKI k ospe ona du kontsumitzaileen artean eskualde horietan, eta merkatu kuotaren %18 inguru ordezkatzeko du.

### **2,2 milioi inbertsioetan eta 38 lanpostu berri**

Supermerkatu berriak 1.440 metro koadroko aretoa du, eta Zurekin ereduakoa da; beraz, hiru ardatz ditu: freskoen espezializazioa; produktu sorta zabala kontsumitzaileari aukera askatasun handiagoa emateko; eta tokiko produktuen aldeko apustu sendoa. Hura martxan jartzeko, 2,2 milioi euro inbertitu dira, eta 38 lanpostu sortu. Langileek 5.930 prestakuntza ordu baino gehiago jaso dituzte,

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



bezeroari irtenbide hobeak emateko eta dendan lan egiten duten profesional taldeek berek autogestioan sakontzeko.

Saltokiaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, mahaiak jarri baititu okindegian, harategian, urdaitegian eta arrandegian. Arreta pertsonala aldatuz joango da pixkanaka, kontsumitzaileari EROSKI Clubaren txartelaren bitartez egindako eskaintzekin eta promozioekin, zeinak dagoeneko 400.000 bezero-bazkideetik gora baititu Bizkaian.

Bestalde, EROSKIek sustatzen duen elikadura osasungarriarekin batera, Elikadura Ekologikoa eta Dietetikoaren atala izango du supermerkatu berriak, eta era berean produktu sorta bat edukiko du elikagaiekiko intolerantziak dituztenentzat eta beren elikadurarekin sentibilizatuta daudelako glutenik gabeko, azukre gutxiko eta gatz gutxiko dietak egiten dituztenentzat.

Ingurumenari dagokion atalean, saltoki berri honek ohiko saltoki batek baino %60 energia gutxiago kontsumituko du; izan ere, azken belaunaldiko diseinu klimatikoa eta hotz instalazioak ditu, eta, gainera, kontrol zentralizatua duen LED argiztapeneko sistema bat du, energia era efizienteagoan kudeatzeko.

### **Inaugurazio ekitaldi ofiziala arratsalde honetan**

Nahiz eta supermerkatu berriak jendaurrean atek irekiko dituen bihar (osteguna) 09:00etatik 21:00etara, EROSKIko langileek, senideek eta Bezero Bazkideek arratsalde honetan inauguratuko dute 19:00etan. Hor izango dira, era berean, Eusko Jauriaritzako Merkataritza Zuzendari Juan E. Andrades, Garapen Ekonomikoaren, Merkataritzaren eta Enpleguaren Saileko zinegotzi Xabier Otxandiano eta EROSKIko ordezkariak.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)